



## ZAKILIXUT

© Olarizak



ganbaratik

•• Jone Larrañaga

### Hamabostero sofritzen

• Ganbara honetatik azkeneko noiz idatzi nuen ere ez dut gogoratzen. Oporren aurretik izango zen, eta jakina, opor garaian ahaztu egiten dira pasadizo txar guztiak. Txarra diot ez baita lan erraza kolumnatxo kaskar hau idazteko aitzakia egokia topatzea.

Gaiak tentatu bai, baina ondo ezagutu ez eta iritzirik ez ematea hobe dela pentsatzen da batzuetan; azken kolumna idatzi zenuenetik kontatzeko moduko pasadizorik ez duzula konturatu zara beste batzuetan; eta zure txanda etorri eta kolumna erabat ahaztuta zenuela jabetzen zara askotan. Hori bera gertatu zait gaur: seko ahaztuta. Eta klaro, desentrenatuta nago. Oporren aurretik gaia pentsatu, kaskoan buelta batzuk eman eta idazteko nahikoa nuen ordu erdiko tartea. Baina oporren ondoren... oporren ondoren oraindik martxa hartzeko.

Oraingo honetan Enekoitzi eskean joateko ausardia ere izan dut; borondate oneko mutila bera, eta gaurko gairen bat edukiz gero nire tartea beteko zuela pentsatu dut. Baina ez, huts. Ramonengana bidali nau hark; hura dela salbatzailea eta momentu txarretan bera ere atera duela larrialditik. Ramonek ere ezet, oraingo honetan ideia biltegia huts-hutsa duela.

Ezin hasiko ba erredakzioan buelta gehiago ematen, eta azkenean tartea betetzea beste erremediorik ez. Hara, eta hau atera da. Gutxienez balioko ahal dio norbaiti hamabostean behin kolumna bat betetzeak sortzen duen sofrimendua ulertzeko. •

## Mugarriek beren tokian diraute

Gasteizko udal ordezkariak mugarriak dagokien tokian daudela egiaztatu zuten

URTERO Olarizuko Egunean gertatzen den bezalaxe, aurten ere Gasteizko udal ordezkariak udalerrirako mugarriak ziren. Aurreko urtean ikuskapena utzi zen toki berean berriartu ibilaldia eta hamar bat kilometro mugarriak dagokien tokian daudela egiaztatu behar da. Orain arte mugarri bakoitza beti bere lekuan egonenez, zeregin hau goiza lasai eta elkarrekin igarotzeko aukera aproposa bilakatu da Gasteizko politikarientzat.

Goizeko zortzi eta erdiertarako udal lurrerotakoak prest zeuden Plaza Berrian, aurten Gasteizko iparreko mugarriak kontrolatuko zuten gidari, kazetari eta beste gonbidatuen zain. Irteera ordua (bederatziak) hurbildu ahala, politikariak agertzen hasi ziren. Lehenik eta behin, elkarri zapatetara begiratu zioten mendian zehar ibiliko ote zien jakiteko.

Batzuk, Jose Angel Cuerda alkattea esaterako, gorbata eta guzti azaldu ziren, beren asma txangozaleak agurtzea besterik ez baitzen. EAJko hiru zinegotzi, berriz, mendiko bizikletan etorri ziren; iraganen zaldi gainean egiten zen ibilaldia. Mugarriak ikuskatzeko bildutako beste hamar zinegotziek, bestalde, bederatzi kilometro pasatxoak oinez beteko zituzten.

**Euskarari mugarriak ez**  
Hamarrak lauden gutxiagotan espedizio osoa iazko azken eta aurtengo lehenengo mugarriaren aurrean zegoen, Arratzu-Ubarrundia

**Mugarri bakoitza**  
**gasteiztar zinegotziek**  
**daramaten makilarekin**  
**ukitu behar da**  
**kontrol gisa**



Udalerrirako Artzubiaga alboan dagoen 281. mugarri hain zuzen ere, ibilaldiari ekiteko prest. Une hartan urrutitik pankarta bat zaramaten bost lagun hurbildu ziren, Euskarari mugarriak ez zioen. Bertan itxaroten gelditu zirenei Euskaltzaleon Elkarguneak sinatutako gutunak banatu zizkieten, horietan «Udal honek euskara mugatzeko duen joera» salatu eta udal ordenantzak behingoz eztabaidatzeko eskatzen zitzaizkien. «Bi urte itxaron dugu, eta hori nahikoa denbora da lan serio bat aurkezteko. Abenduaren 31 arte besterik ez dugu itxarongo.» Halaxe mintzatu ziren euskaltzaleak. Konturatu ez zirelako edo konturatu nahi izan ez zutelako, bakar batzuek besterik ez zieten kasurik egin.

Mugarri batetik bestera azkar samar ekin zioten ondoren, hasieran behintzat, Artzubiaga, Durana, Mendibil eta Arroiabe herrien inguruan. Mugarri bakoitza zinegotziek makila batekin ukitu behar dute kontrol frogara gisa, baina hasieran hala egin bazuten ere, azkenean ez zen horretarako gogo handirik. Udalerrirako eta herri bakoitzeko orde-

**Ohiturari**  
**jarraiki, hiriko**  
**mugarriak**  
**lekutik mugitu**  
**ez direla egiaz-**  
**tatzera abiatu**  
**ziren atzo Uda-**  
**leko ordezkariak.** Espero  
bezala, ez  
zuten ezuste-  
korik topatu.

JOSEBA  
OLALDE

kariak Gasteizko segizioa lagundu zuten beren jurisdikziopeko lurraldea zeharkatzen ari zirenean, eta amaitutakoan alde egiten zuten.

Langara-Ganboako lurraldean sartu bezain pronto, lehen aldapatxoak igo behar izan zituzten ordezkari nekaezin gasteiztarrek. Ondorioz tropela luzatzen hasi zen, eta ondoren zatitu egin zen. Gora eta behera ibiltze horretan, talde buerak hamaiketakoaren usaina jaso, eta horri ekin zioten, indarrak berreskuratzeari alegia. Eskaloepa piperrekin, ura, Arabako ardoa eta melokotoi bana, galdutako indarrak jasotzeko. Bazen ere, indarrak berreskuratuko ezinean, handik aurrera kotxez jarraitu zuena.

Motel eta nagiro ekin zitzaion berri ibilaldiari. Hala ere, txarrena atzean utzia zen, eta beste ordu lasaia besterik ez zen geratzen 332. eta azken mugarri hertzeko. Datorren urtean, bertatik hasiko da hurrengo ikuskapena, baina aurtengoa bukatutzat eman zuten Olarizuko Egunean goiz ederrean.

Edu Lz. de Luzuriaga

GASTEIZ